



ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: BIOLONTXELOA

2022-03-09

Nori zuzenduak?

Graduko Biolontxelo Interpretazio ikasketak Musikenen egiteko interesa duten musika ikasleei zuzendua.

Sarrera probak 2022-2023 edo 2023-2024 ikasturteetan egin behar dituztenen izen-ematea onartuko da. Musikenek jasotako izen-emate kopuruaren arabera onarpen eskubidea gordeko du.

Jardunaldia aurrez aurre egingo da. Parte hartu ahal izateko **aurrez erreserba** egin behar da **izena emateko orria** betez. Epea **2022ko martxoaren 3an** amaituko da.

Jardunaldiaren helburua

Biolontxelo interpretazio Gradua egin nahi duten ikasleei informazioa eta orientazioa ematea: sarrera proben egitura, eskatzen den maila, espezialitatearen eta ikasketa planeko irakasgai ezberdinen helburuak, bai eta irakasleak ezaqutzea ere.

Non egingo den

Musikene, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegia
Europa Plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián
Telefonoa: 00 34 943.023.750
E-maila: info@musikene.eus
<https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Jardunaldiaren egitura

MARTÍNEZ, Damián eta POLO, Asier

9:00 Bilera informatiboa, bertan azalduko dira: **Musikeneren** nondik norakoak, Graduko ikasketa planak, osatzen duten irakasgaiak eta irakasten dituzten irakasleak, **Musikenek** eskaintzen dituen aukera eta proiektuak, sarrera proben egitura eta zehaztasunak, ikasketetan sartzeko betebeharrak eta epeak. Ikastegiari bisita gidatua egingo zaio.

10:00-11:00 Asier Polo espezialitateko irakasleak eskola irekiak emango dizkie Musikeneko ikasleei

11:00-14:00 Asier Polo espezialitateko irakasleak eskola irekiak emango dizkie hala nahi duten ikasle aktiboei

11:00-12:00 Damián Martínez espezialitateko irakasleak eskola irekiak emango dizkie Musikeneko ikasleei

12:00-15:00 Damián Martínez espezialitateko irakasleak eskola irekiak emango dizkie hala nahi duten ikasle aktiboei

15:00 Jardunaldiaren amaiera

Biolontxelo jardunaldiari buruzko informazio gehiago jasotzeko jarri harremanetan Marta Moll
Hari Departamentuko buruarekin:
mmoll@musikene.eus